

2025EKO MAIATZAREN 5EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko maiatzaren bostean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Ez da onartzeko aktarik aurkeztu, hurrengo batzordean aurkeztuko da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 37 zenbakidun zerrenda, HIRUROGEITA HEMERETZI MILA LAUREHUN ETA LAU euro ETA LAUROGEITA BI zentimokoa (79.404,82 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- SASIETA MANKOMUNITATEARI 2025EKO EKARPENA

Sasieta Mankomunitateak, bera osatzen duten Udalek 2025ean egin beharreko ekarpenak planteatu ditu.

Planteamendu horren arabera Lazkaoko Udalaren 2025eko behin-behineko ekarpena 619.599,35 € izango da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, Sasieta Mankomunitateari, 2025 urtean, 619.599,35 €-ko ekarpena onartzea erabaki du aho batez.

IV.- MEANDRO ALDEAN OINEZKOENTZAKO BIDEA EGITEKO LIZITAZIO DEIALDIA ESLEITU GABE UZTEA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko martxoaren 31an egindako bilkuran, Meandro aldean oinezkoentzako bidea egiteko prozedura ireki sinplifikatu bidez eta lehiaketa bidez, esleitzeko kontratazio espedientea eta honi dagozkion baldintza

teknikoen eta administrazio-baldintza partikularren agiriak onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratzailearen profilean argitaratu zen 2025eko apirilaren 7an, eskaintzak aurkezteko azken eguna 2025eko apirilaren 28a izanik.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformak bidalitako jakinarazpena jaso zen, aldi horretan proposamenik aurkeztu ez zela adieraziz.

Hori horrela izanik, Kontratazio Mahaiak, 2025eko apirilaren 29an egindako bilkuran Kontratazio Organoari esleipen-espeditentea esleitu gabe uzteko proposamena helaraztea erabaki zuen.

Horren guztiaren aurrean, eta Kontratazio Mahaiaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehena.- Meandro aldean oinezkoentzako bidea egiteko lizitazio deialdia esleitu gabe uztea.

Bigarrena.- Erabaki hau Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman argitaratzea.

V.- HIRIGOIEN 56-58AN BULEGOETARAKO 2 LOKAL GAITZEKO OBREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ESLEIPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Hirigoien kaleko 56 eta 58 zenbakietan Udalak dituen bi lokal gaitzeko obrak, prozedura ireki sinplifikatu bidez eta lehiaketa bidez, esleitzeko kontratazio espeditentea eta honi dagozkion baldintza teknikoen eta administrazio-baldintza partikularren agiriak onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratzailearen profilean argitaratu zen 2025eko martxoaren 11n eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, proposamen bakarra aurkeztu zen.

Aurkeztutako enpresa honako hau da:

- CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.

Aurkeztutako enpresa onartua izan zen.

Administrazio-dokumentazioa eta balio-iritziei lotutako irizpideen arabera baloratu beharreko dokumentazioa jasotzen zituen "A" artxibo elektronikoa 2025eko apirilaren 2an, eguerdiko 12:30etan, ireki zen.

"A" artxibo elektronikoaren dokumentazioa aztertu ondoren, onartutako enpresak aurkeztutako balio-iritziei lotutako irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioak lortutako puntuazioa ondorengoa da:

	CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.
Laneko programa eta obra plana (10 puntu)	10,00
GUZTIRA	10,00

2025eko apirilaren 10ean, eguerdiko 12:30etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, proposamenak balio-judizioei lotutako irizpideak aplikatuta lortutako puntuen berri eman zen, eta, jarraian, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuen "B" artxibo elektronikoa ireki zen.

Hau izan zen onartutako enpresak aurkeztutako eskaintza:

ENPRESA	Proposamen ekonomikoa	Berme-epea
CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.	112.401,03 €	5 urte

Enpresa lizitatzailerak lortutako puntuazioa:

ENPRESA	Prop. teknikoa Prop. técnica	Prop. ekonomikoa	Bermea	GUZTIRA
CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.	10,00	80,00	10,00	100,00

Ondorioz, eta lehen sailkatua CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzaileren erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia kontuan izanda, kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehena.- Hirigoien kaleko 56 eta 58 zenbakietan Udalak dituen bi lokal gaitzeko obrak CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.ri esleitzea, EHUN ETA HAMABI MILA LAUREHUN ETA BAT euro eta HIRU zentimo (112.401,03 €) gehi dagokion BEZ prezioan, hau da, proposatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarritako prezioan.

Bigarrena.- Esleipen honen jakinarazpena kontratazio prozedura honetara aurkeztutako guztiei egitea, hala nola kontratatzailearen profilean argitaratzea.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.